

EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko apirilaren hogeita biko gaueko bederatziak eta hamar minutu direnean, bildu dira, ez ohiko eta urgentziazko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa- Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti- Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar, ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

UDALBATZARRAREN URGENTZIAREN AITORPENAREN ONARPENA.

Alkateak hitza hartu du eta proposatu du udalbatzarraren urgentzia aitortzea. Proposamena aho batez onartu dute.

BIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO PROIEKTUAREN OBRA LANAK EGITEKO KONTRATUAREN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA ERABAKITZEA.

Ikusirik Errezilgo Udaletxean igogailua instalatzeko proiektuaren obra lanak egiteko ondorengoak aurkeztu direla:

1.- Aluminios Azpeitia, S.L (sarrera zk 150)

2.- Lanobra Koordinakuntzak S.L (sarrera zk 151)

3.- Arkaitz Baltzola (sarrera zk 152)

Beraien proposamenak ondorengoak direlarik:

1.- Aluminios Azpeitia, S.L: 62.801,34 € (BEZa barne)

2.- Lanobra Koordinakuntzak S.L: 67.792,72 € (BEZa barne)

3.- Arkaitz Baltzola: 71.880,56 € (BEZa barne)

Ikusirik enpresa bakoitzak aurkezturiko proposamena eta dokumentazioa aztertu direla.

Ikusirik pleguetan aipatzen diren balorazioak kontuan izan ondoren, bakoitzaren baloraketa eta puntuaketa egiten dela:

1.- Prezioa: 60 puntu arte gehienez.

1.- Aluminios Azpeitia, S.L: 60 puntu

2.- Lanobra Koordinakuntzak S.L: 0 puntu

3.- Arkaitz Baltzola: 0 puntu

2.- Langile berriak eta langabezian dauden langileak kontratatzea: 20 puntu arte gehienez.

1.- Aluminios Azpeitia, S.L : 0 puntu

2.- Lanobra Koordinakuntzak S.L: 0 puntu

3.- Arkaitz Baltzola: 0 puntu

3.- Proiektuari hobekuntzak egitea: 20 puntu arte.

1.- Aluminios Azpeitia, S.L: 0 puntu

2.- Lanobra Koordinakuntzak S.L: 0 puntu

3.- Arkaitz Baltzola: 0 puntu

Guztira:

- 1.- Aluminios Azpeitia, S.L: 60 puntu
- 2.- Lanobra Koordinakuntzak S.L: 0 puntu
- 3.- Arkaitz Baltzola: 0 puntu

Ikusirik guzti honen ondorioz, Kontratazio Mahaiak, Udalbatzari ALUMINIOS AZPEITIA, S.L.-ri hirurogeita bi mila zortzirehun eta bat euro eta hogeita hamalau zentimo (62.801,34 €) ordainduaz adjudikatzeko proposamena egiten diola. Eta aldi berean, Alkateari baimena ematen zaiola beraiekin kontratua sinatzeko.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Bittor Astigarraga Zugasti Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Udaletxean igogailua instalatzeko proiektuko obren esleipena Aluminios Azpeitia, S.L.-ri behin behineko izaerarekin adjudikatzea eta Alkateari beraiekin kontratua sinatzeko baimena ematea onartu da.

HIRUGARREN PUNTUA:

ERREZILGO GAZTELEKU ETA LIBURUTEGIKO ERABILERA ETA KUDEAKETA EMATEKO ADJUDIKAZIOAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Ikusirik 2010eko martxoaren 24ko Udalbatzan, Errezilgo gaztelekuko erabilera eta kudeaketa ematea Gorka Tolosa Usarraga jaunari esleitu zitzaizola behin behineko izaerarekin.

Ikusirik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legearen 135. artikuluan aurreikusitakoaren arabera iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun gutxienez igaro ondoren, behin behineko akordioa behin betiko bihurtuko dela pleguetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz gero.

Ikusirik Gorka Tolosa Usarraga jaunak eskaturiko dokumentazioa aurkeztu duela.

Aipaturiko guztiagatik, Alkateak jakinerazten du, behin behineko akordioa behin betiko bihurtzea eta Gorka Tolosa Usarraga jaunari behin betiko izaerarekin esleitzea.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Bittor Astigarraga Zugasti eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, Errezilgo Gazteleku eta liburutegiko erabilera eta kudeaketa behin betiko izaerarekin Gorka Tolosa Usarraga jaunari adjudikatzen zaio 2010eko martxoaren 24an harturiko akordioaren arabera.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta hogeitun minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.